



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2004ko martxoaren 17a

21. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru lege proiektua, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko bosgarren xedapen gehigarria aldatzen duena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizartean baztertutako emakumeen egoera hobetzeko publizitate kanpaina bat egin dezan. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak onetsia (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egungo gasolina-mahukak aldatzeko neurriak har ditzan. Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Batzordeak bazter utzia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legeko bosgarren xedapen gehigarria aldatzeko foru lege proiektu bat aurkez dezan. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bizikletaren plan zuzendaria taxu dezan. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak onetsia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da salestarren ikastetxearen balizko lekualdatzean esku har dezan. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak bazter utzia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berdin trata ditzan Larra-Belaguarako aurkezten diren proiektuak. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak bazter utzia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten juridiko bat egin dezan, Nekazaritza Politika Bateratuaren eskubideak herri-lurren aprobetxamenduen titularrei atxikitzearen auziari buruz. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Batzordeak bazter utzia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizonezko alargunek 900 euroko zerga osagarria kobratzeko behar diren neurriak har ditzan. Erretiratutako mozioa (7. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordea berritzeko hauteskundeetarako deia. Akats zuzenketa
(8. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru lege proiektua, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko bosgarren xedapen gehigarria aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko martxoaren 15ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2004ko martxoaren 15ean hartutako erabakiaren bidez, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko bosgarren xedapen gehigarria aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko bosgarren xedapen gehigarria aldatzen duen Foru Lege proiektuaren biderapena zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izan ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2.- Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko da. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiaren aurrean aurkeztu beharko dira.

3.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2004ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru lege proiektua, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko bosgarren xedapen gehigarria aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Parlamentuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak, 2004ko martxoaren 10eko bilkuran, Nafarroako Gobernuari eskatu zion Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko bosgarren xedapen gehigarria aldatu zezala, Nafarroako Lurralde Estrategiako agiria Parlamentura igortzeko epea luzatu zedin. Epe hori hemezortzi hilabetekoa izanen da foru lege hark indarra hartzen duenetik hasita.

Artikulu bakarra. Aldatu egiten da Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko bosgarren xedapen gehigarria. Honelaxe geldituko da:

“Nafarroako lurralde estrategia.

Foru lege honek indarra hartu eta gehienez hemezortzi hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Parlamentura igorriko du Nafarroako lurralde strategiaren proiektua.”

Azken xedapenez

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizartean baztertutako emakumeen egoera hobetzeko publizitate kanpaina bat egin dezan.

GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA BATZORDEAK ONETSIA

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak, 2004ko martxoaren 5ean egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizartean baztertutako emakumeen egoera hobetzeko publizitate kanpaina bat egin dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizartean baztertutako emakumeen egoera hobetzeko publizitate kanpaina bat egin dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du publizitateko kanpaina berriazko bat egin dezan ezgaitasunaren ondorioz gizarte bazterketa pairatzen duten emakumeen egoera hobetzeko, helburu hauekin:

1) Familiaren Zuzendaritza Nagusian zerbitzu berriazkoak sor ditzaten sustatzea, departamentuen inplikazioarekin, ezgaitasuna duten alabak dituzten familiei laguntzeko neska horiei mutikoei eskaintzen zaizkien aukera berdina eskaintzeko.

2) Botere publikoek konpromiso egiazkoa eta eraginkorra hartzea aintzat har dezaten lana eta prestakuntza lortzeko, eta lan bitzta eta familia bateragarri egiteko duten desabantaila, eta horrela diskriminazio-eragile askoren menpe dagoen giza talde honen alde egin dezaten.

3) Osasun arloko langileak ezgaitasuna duten emakumeentzako laguntzaren inguruan sentsibilizatzea.

4) Ezgaitasuna duten emakumeen eskubideak kontuan hartuko dituzten politikak sortzea, hala nola bizimodu independentea izatekoa, etxebizitza eskuratzekoa, familia bat eratzekoa, haurrak adoptatzekoa, amatasunean, indarkeria egoeretan.

5) Programa sozialak proposatzea, onuradun nagusi landa ingurunean bizi eta ezgaitasuna duten emakumeak izanen dituztenak, eta haien- tzako prestakuntza eta teknologia berriak sustatzea.

6) Komunikabideak sentsibilizatzea mezu positiboak luza ditzaten ezgaitasuna duten emakumeak gizarte bizitza aktiboan zinez sartzen laguntzeko.

7) Ezgaitasuna duten pertsonak ordezkatzeko dituzten elkarteak eta haien familiak aintzat hartzea, mintzakide izan daitezen, zuzenekoak eta inplikatuak, ezgaitasuna duten emakumeen berdintasuna esparru guztietan bermatzeko baliagarriak izanen diren politika sozialetan.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egungo gasolina-mahukak aldatzeko neurriak har ditzan.

INDUSTRIA ETA TEKNOLOGIA, MERKATARITZA ETA LAN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egungo gasolina-mahukak aldatzeko neurriak har ditzan".

Legebiltzarreko Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Batzordeak, 2004ko martxoaren

3an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2004ko otsailaren 2ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legeko bosgarren xedapen gehigarria aldatzeko foru lege proiektu bat aurkez dezan.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN BATZORDEAK ONETSIA

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak, 2004ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legeko bosgarren xedapen gehigarria aldatzeko foru lege proiektu bat aurkez dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legeko bosgarren xedapen gehigarria aldatzeko foru lege proiektu bat aurkez dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legeko bosgarren xedapen gehigarria aldatzeko foru lege proiektu bat aurkez dezan; horren bidez luzatu egingen da Nafarroako lurralde estrategiaren proiektua Legebiltzarrera igortzeko epea, hemezortzi hilabetekoa izan dadin.

Aipatu foru lege proiektua irakurketa bakarreko prozeduraren bidez tramitatuko da.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bizikletaren plan zuzendaria taxu dezan.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN BATZORDEAK ONETSIA

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak, 2004ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bizikletaren plan zuzendaria taxu dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bizikletaren plan zuzendaria taxu dezan

Nafarroako Gorteek Nafarroako Gobernua premiatzen dute sei hileko epean bizikletaren plan zuzendaria egin dezan. Plana Parlamentura igorriko da eztabaidatu eta onetsi dezan. Plana prestatzeko, arlo honetan inplikaturiko elkarteetan iritzia kontuan hartuko da. Kontuan hartuko dira, halaber, bizikletaren erabilera sustatzeko Europako gainerako herrialdeetan dauden esperientziak. Planaren xedea bizikletaren erabilera areagotzeko neurriak finkatzea da.

Plan horretan, tokiko agintarientzako finantza-pizgarriak ere bilduko dira, behar diren bideak egin ditzaten. Halaber, kontuan hartuko da bizikletak erabiltzeko eremuak egokitzeko beharra.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da salestarren ikastetxearen balizko lekualdatzean esku har dezan.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da salestarren ikastetxearen balizko lekualdatzean esku har dezan".

Legebiltzarreko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak, 2004ko

martxoaren 10ean egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2004ko otsailaren 23ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berdin trata ditzan Larra-Belaguarako aurkezten diren proiektuak.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berdin trata ditzan Larra-Belaguarako aurkezten diren proiektuak".

Legebiltzarreko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak, 2004ko

martxoaren 10ean egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2004ko martxoaren 2ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten juridiko bat egin dezan, Nekazaritza Politika Bateratuaren eskubideak herri-lurren aprobetxamenduen titularrei atxikitzearen auziari buruz.

NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA ELIKADURA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten juridiko bat egin dezan, Nekazaritza Politika Bateratuaren eskubideak herri-lurren aprobetxamenduen titularrei atxikitzearen auziari buruz".

Legebiltzarreko Nekazaritza, Abeltzaintza eta

Elikadura Batzordeak, 2004ko martxoaren 9an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2004ko otsailaren 23ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko martxoaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizonezko alargunek 900 euroko zerga osagarria kobratzeko behar diren neurriak har ditzan.

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizonezko alargunek 900 euroko zerga osagarria kobratzeko behar diren neurriak har ditzan".

Legebiltzarreko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak, 2004ko martxoaren 5ean

egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak mozio hori atzera bidali zuela jakitun zegoela adierazi zuen. Mozio hori 2003ko azaroaren 3ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

**Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordea berritzeko hauteskundee-
tarako deia.**

AKATS ZUZENKETA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko martxoaren 15ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Mahaiak, iragan otsailaren 9an hartutako erabakiaren bidez, Langileen Batzordea berritzeko hauteskunde prozesuaren egutegia onetsi zuen, erabakiaren eranskin gisa. Egutegi horretan egun balioduntzat jo zen martxoaren 19a, baina jaieguna da berez, eta horrenbestez, akatsa zuzendu beharra dago. Halatan, ondokoa ERABAKI DA:

1. Langileen Batzordea berritzeko hauteskunde-
deen egutegiari buruz Mahaiak 2004ko otsailaren
9an hartu zuen erabakiaren eranskina aldatzea,
alegia, egutegian martxoaren 19a agertzen den
lekuan martxoaren 20a agertuko da.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko
Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta hauteskunde
mahaiko buruari honen berri ematea.

Iruñean, 2004ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 41,00 euro</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 1,05 »</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,23 »</p>	<p>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Navas de Tolosa, 1</p> <p>31002 IRUÑA</p>
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------